

KONTROL MOZIOA

Atarizar kalea eta Ategorrietako hiribidearen inguruko trafikoa dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko urriaren 14ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken egunotan Zurriola ikastolaren inguruan, Atarizar kalean eta Ategorrietako hiribidearen inguruan abiadura moteltzeko pankartak ikusi ahal izan ditugu.

Haien kezka, Marrutxipiko saihesbidearekin lotura zuzena du, zehazki, urriak 11ean ireki zena autoentzako. Jakina da, Marrutxipiko saihesbidea irekitzean inguru horretatik trafikoa areagotu dela.

Hortz, inguru horretako ikastetxeetako komunitateak (Zuhaizti ikastola, Zurriola ikastola, Ategorritxo haur-eskola) eta bestelako eragile eta bizilagunak arduratuta daude autoek etorkizun batean izan dezaketen presentziarekin.

Baina orain saihesbidea bakarrik ez, eta Udal Gobernuak iragarri berri du, Marrutxipiko saihesbidetik sartuko diren autoak hiri erdigunera sar ez daitezen, inguru horretan disuasio-aparkaleku bat jartzeko asmoa duela.

Albistea prentsan atera ondoren, jakin ahal izan dugu, are eta kezkatuagoak geratu direla inguruko bizilagun eta ikastetxeetako komunitateak. Haien iritziz, eta haiek hartutako erabakiekin kontrajarriz, bertan aparkaleku bat jartzeak inguruan oraindik eta auto gehiago egotea ahalbidetuko baitu.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Zinegotzi arduradunari galdetu genion Udal Gobernuak ingurune horretan hartu behar dituen neurrien inguruan. Udal Gobernuak gune honetan guztian trafikoa areagotuko dela onartuz, hainbat neurri hartuko zituela adierazi zigun, hala nola, radar bat jartzea Mons pasealekuan edo Ategorrietan oinezkoentzako bi pasabide berri semaforoekin.

Hala ere, nahiz eta eremu horretan trafikoa baretzeko hainbat neurri hartu, jakin berri dugun albistearekin, disuasio-aparkalekua jartzea inguru horretan, bestelako neurriak hartu eta hausnarketa egin beharko lituzke ingurune horri buruz Udal Gobernu honek.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Atarizar eta Ategorrieta inguruan trafikoa baretzeko hartu behar dituen neurriak berrikustea eta hala badagokio neurri berriak hartzea.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Atarizar eta Ategorrieta inguruan dauden ikastetxeekin, eragileekin eta bizilagunekin partekatu ditzan hartu beharreko neurriak eta haien nahiak eta iritzia errespetatu ditzala adostasun batera iristeko.

Donostian, 2024ko urriaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia